

Heri Aldizkaria **Otamotz**

1998ko ekaina 38. alea



Zumarragako jaiak

QUEMALIZATEOK
**Zintzo
Zintzo**
ELIABATEARI



ESKOLA KIROLAREN GEHIGARRIA

SANTA ISABELAK 98 ZUMARRAGA

Giro onena hemen aurkituko duzu



HUTS



TABERNA

H

IRUKIA



Maitte



ARRUABARRENA

Legazpi, 8
Tel. 792871
20700 Zumarraga
Gipuzkoa



POLITENA

TABERNA



ARBUPE TABERNA



1950. urtean Zumarragan jaunartzea egin zuten haurrak dira honako hauek. Lau handienak: Cruz Uribesalgo, Antonio Mendia, Irene Dorransoro eta Itziar Txintxurreta. Atzekaldeko ilaran: Alberto Aranguren, M^a Karmen Zaldua, M^a.E. Aparicio, Loli Lopez, ezezaguna, Isabelita Sarralde eta Milagros Del Bosque. Beheko ilaran: M^a Luisa Aldalur, Maribel Telleria, Begoña Mendizabal, Rosarito Mendizabal, M^a.C. Alvarez eta Angeli Urtaran.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkarte, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu.
Tel: 943725775 **koordinatzailea:** Jon Balenziaga **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Jonmikel Insausti, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Marian Toledo, Asier Zaldua. **Publizitatea:** Asier Zaldua **Diseinua:** Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti.
Inprimategia: GOI DESIGN - Zumarraga **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318
Tirada: 2.000 ale. **Edizio digitala:** <http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202> **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.



Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Iparragirre, 11 URRETXU tel:722599


MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

BAIMENDUTAKO




Pepe Jeans
LONDON



SALTOKIA

DOSS

Bidezar, 13 ZUMARRAGA



MADARIAGA

Gestoria-Inmobiliaria-asegurua

Labeaga, 27 ☎ eta faxa: 72 55 29
URRETXU



ERAIKUNTZEKO MATERIALAK

ALMACENES

SANTA BARBARA

Eraikuntzarako era guztietako materialak.
Gres eta azulejotan markarik onenak.

Mugitegi Pol. B, 2 ☎ eta faxa 72 55 16
URRETXU

Berriki

OINETAKOAK-JANTZIDENDA

Ipiñarrieta, 2 ☎ 720084-720678
URRETXU

SANTA ISABELAK 98

Uztailak 1 asteazkena

Egunean zehar, Euskadi enparantzan:

Haurrentzako parkea.

Arratsaldeko 6.30etan: "Antzinako Ama" txistulari taldearekin batera, Antiguako Amari ikustaldia.

Arratsaldeko 7.30etan: Andre Maria

Jasokundekoaren parroki elizan, parroki abesbatzak abestuta, Eslavaren salbea.

Iluntzeko 10etan: Zelai Aristi pilotalekuan, txupinazoa, txosnen irekitzea eta antzerkia.

Gaueko 11etan: Elkarteen arteko XXXIII. tanborrada.

Ondoren, goizeko 3ak arte: Kalejira eta Euskadi enparantzan, animazioa Aldatz Gora fanfarrearekin.

Uztailak 2 osteguna (Santa Isabel eguna)

Goizeko 8.30etan argazki rallya.

9.30etan: Herriko agintari nahiz herritarrak, parroki elizara joango dira herriko apaizekin batera Antiguako Amaren elizara igotzeko.

Goizeko 11etan: Meza nagusia. Herriko dantzariak ezpatadantza dantzatu eta eskainiko diote Ama Birjinari.

12:30etan: Aurrekoa eliza aurreko zelaian.

1ean: Joxe Agirre eta Imanol Lazkano bertsolariak.

2etan: Herri bazkaria eta ondoren erromeria.

Arratsaldeko 7etan: Antiguako Amari bederatzirrena eta errosarioa.

8.30etan, agurra eta itzulera. Herrira iristean, kaleko ezpatadantza.

Gaueko 11etan, Zelai Aristi pilotalekuan kontzertua. Eta Euskadi enparantzan dantzaldia Tarantella orkestrarekin. Txaranga kalean zehar arituko da.

Uztailak 3 ostirala (Baserritarrei eskainitako eguna)

11.30etan, Sekundino Esnaola musika eskolako trikitilarien kalejira.

Arratsaldeko 4.45etan Zelai Aristi pilotalekuan eskalada.

4.30etan, Euskadi enparantzan herri kirolen erakusketa. Idi probak, harrijasotzaileak, aizkolariak eta trikitixa giroa alaitzen.

8.30etan: Euskadi enparantzan, Lebrijako Blanca Paloma abesbatzaren saioa.

Iluntzeko 9etan: Zelai Aristi pilotalekuan afaria trikitilari eta bertsolariek alaituta.

Iluntzeko 10.30etan: Beloki pilotalekuan, profesionalen arteko pilota partidak.

Lehen partida: Olaizola II- Auxkin, Haritz-Almandozen aurka.

Bigarren partida: Titin III-Lasa, Goñi II-Elkororen aurka.

Gaueko 11etan: Zelai Aristi pilotalekuan kontzertua, eta ordu berean, Geldi hor txaranga.

Uztailak 4 larunbata (kuadrilei eskainitako eguna)

Eguerdiko 12etan, kuadrilen arteko jolasak Euskadi enparantzan.

Eguerdiko 12.30etan leku berean, Villanova i la Geltruko Colla de Falcons taldearen saioa.

Eguerdiko 1ean, poteo herrikoa eta ondoren bazkaria. Bazkal ostean, karaokea, trikitilariak eta beste hainbat animazio.

Arratsaldeko 6etan: Dantza erakusketa Irrintzi eta Lurra taldeen eskutik.

Arratsaldeko 8.30etan Euskararen aldeko giza katea.

Gaueko 11.30etatik aurrera, dantzaldia Gaubela taldearekin.

Gaueko 12etan: Euskadi enparantzan, "Larrain dantza" dantzatuko da.

Goizeko 5etan: Txokolatejana txosnetan.

Uztailak 5 igandea (jubilatuei eskainitako eguna)

12.30etan, meza nagusia parroki jubilatuentzako.

1.30etan, Euskadi enparantzan Zumarragako Musika Bandaren kontzertua.

Arratsaldeko 2.30etan, jubilatuen bazkaria.

Arratsaldeko 7etan, Euskadi enparantzan, dantza libre txapelketa.

Ondoren, Aldapa txarangarekin kalejira.

TXIKIMOTZ

ESKOLA KIROLAREN VIII. GEHIGARRIA

Urrian hasi eta hilabetero-hilabetero zuek eskola kirolean egiten zenutenaren berri ematen saiatu gera **TXIKIMOTZ** eskola kiroleko gehigarrian. Gaurkoan berriz iritsi zaigu zuei agur esateko ordua, izan ere zuek kursoa bukatu baituzue eta orain ondo merezitako oporraldi luzea izango duzue. Beraz gehiegi luzatu gabe oporraldi ona igaro dezazuela eta ea hurrengo ikasturtean berriz elkar ikusterik dugun.



La Salle ikastetxeko kadete mailako neskek Gipuzkoako futbol 7 txapelketan lehenengo postua lortu dute.

Neska hauek iaz azpitxapeldunak gelditu ziren, baina aurtengoan lortu dute azkenik hainbeste desio zuten lehenengo postua.

Neska hauen entrenatzailea Victor Garzia da. La Salleko neskek finala Intxaurrendon jokatu zuten Zarautzko Lizardi

ikastetxearen aurka maiatzaren 23an. Argazkian txapelketa irabazteagatik eman zizkieten domina eta garaikurrekin ikus daitezke beraien entrenatzailearekin batera La Salle ikastetxeako patioan.

Zorionak neskek eta segi horrela.



Samuel Benitez

La Salle ikastetxeako ikasleek lortutako garaipenak ez ziren futbolera mugatu, izan ere Euskadiko judo txapelketan oso emaitza onak eskuratu zituzten. **Samuel Benitez** lehenengo postua lortu zuen 65 kilotik gorako mailan. Garaipena asko kostatakoa izan zen eta garaipenaren ondoren Samuel oso gustura zegoen egindako lanarekin. Podiumean ez zen bakarrik egon, izan ere, **Gonzalo Iza** ikaskideak brontzezko domina lortu baitzuen.



Zorionak biei egindako lanarengatik.



Gonzalo Iza



ESKOLA KIROLA

Maiatzaren 30ean **Antion** Eskola Kirolaren amaiera ospatzeko festa bat burutu zen. Eguraldiak gehiegi lagundu ez arren jende ugari bildu zen bertara egin ziren jokuetan parte hartzeko asmoarekin. Antolatzaileak oso gustura zeuden **partehartzaile asko** izateaz gain festa borobila izan zelako. Bertan besteak beste, aulkien jokua, toka txapelketa, sokatira, lokots apostua, Antiora lehenengo txirrindu goera.. egin ziren.



ESKOLA KIROLA

(98-5-30)



“Eskola kirolean erantzunkizun handiena guraso eta ikastetxeek dute”

Ikasturtea amaitzean dagoen garai honetan, Joxean Mendizabal eta Mikel Kristobalengana jo dugu urtean zehar burutu den eskolarteko kirol txapelketari buruz balorazio bat egin diezaguten

Hasteko urtearen balorazio bat egidazue modu labur batean.

Urte hasieran arazo asko agertu ziren, baina ikasturtean zehar arazo hauek konpontzen saiatu gera eta bukaera egin daiteken balorazioa nahiko ona da.

Aurten zer falta izan zaio ikasturteri zuen ustez?

Urtero-urtero gure asmoa eskola kirola hobetzea da, eta horretarako xede batzuk jartzen ditugu hasieran, eta gu xede horiek betetzen saiatzen gera, aurtengoan arazo handiena klub eta koordinatzaileen arteko harremana behar lukeena baina okerragoa izan dela da. Ondorioz hurrengo urterako gure xede nagusia hau konpontzea izango da.

Eta nola espero duzue hori lortzea?

Datorren hilabetean 3 herrietako udal-ete eta ikastetxeak agiri bat sinatuko dute, guk agiri hau eskola kirolaren nondik norakoa gidatuko duen agiria izatea nahiko genuke, agirian kirol polibaletea bultzatu behar dela sinatuko dute. Orainarte genuen xedea berdina zen baina ez dugu inoiz agirik sinatu, eta aldi berean guzti hau aurrerantzean ondo irten dadin klub-eben oniritzia jaso nahi genuke. Klubekin dagoen arazoa hitzeginez konpondu daitekeela uste degu, orainarte mantendu den harremana klub-eben eta udalen artekoa izan da, eta hemendik aurrera lortu nahi den harremana klubak, udalak eta ikastetxeen artekoa da. Modu honetan, denak batera, proiektua aurrera ateratzea errezagoa izango delarik.

Jendearen erantzuna nolakoa izan da?

Orokorrean harturik erantzuna ona izan da. Eskola kirola bultzatzeko proiektua epe luzera begira eginda dago, duela 4 urte hasi zen eta 6 urte barru amaituko da, urtetik urtera gauzak hobeto egiten dira, ikasle gehiago dago, kirola hobetuz dago, etb. Arazo larriena monitorerik ez dagoela da, izan ere 18 urtetik gorakoak kanpora joaten dira ikastera eta orduan zer? nundik hartu behar ditugu behar ditugun monitore hoiek. Dugun irtenbide bakarra urtero jende berria hartu eta formazio pla-



Urtean zehar eskola kirolean era guztietako ekintzak egin eta ikusi ahal izan dira.

nen bitartez hauek monitore izateko prestatzea da.


Gogorra egiten al da urte guztian zehar horrenbeste jende mugitzen duen zerbait antolatzea?

Bai, bueno astero astero biltzen gera, eta beti izaten dugu arazoren bat edo beste konpontzeko, egunero pare bat ordu gutxienez eskeini behar izaten dizkiogu eskolarteko kirolari. Gainera beti sortzen da arazo berriren bat, ez daudelako oraindik gauzak erabat zehazturik eta hauek aurrera eramateko beti bide egokiena hartzen saiatzen gera.

Bukatzeko nahi al duzue zerbait gaineratu.


Guraso eta ikastetxeen erantzunkizunari dagokionean, eskola kirola bultzatzeko zerbait gehiago egin beharko luketela iruditzen zaigu. Izan ere ez diote gai honi behar bezainbesteko arretarik ipintzen, eta hemen interes gehiena eduki behar-

ko luketenak gurasoak eta ikastetxeak dira. Udal-eteak azpiegitura jarriko du eta behar diran beste elementuak, baina erantzunkizun handiena guraso eta ikastetxeek dute, hauek bait dira umeen heziketan ardura handiena dutenak.



Joxean Mendizabal eta Mikel Kristobal

Zer duzu nahiago, San Juanetako erromeria ala Santa Isabeletakoa?




Jose Luis Zaldua

San Juanak ondo daude, baina aukeran nahiago ditut Santa Isabelak. Euskal Herrian ez da horrelakorik, mundialak dira.




Gorka Alarzia

Urretxukoa naizenez, nahiago ditut San Juanak. Bietara joaten nintzen lehen baina azken urteetan, lana dela eta San Juanetara bakarrik.




Sebastian Biain

Santa Isabelak hobeak dira. Ospe handiagoa dute eta giro hobeak dute eta baita jende gehiago ere. Urtero joaten naiz egun pasa, bazkaldu eta gero, jaitsieran parte hartzeko.




Santi Gutierrez

Ez dago dudarik, Santa Isabeletakoa handiago da baina San Juanetako guretzat, etxekoa da, horregatik nahiago ditut San Juanak.



Roberto Gonzalez

Nahiago ditut Santa Isabelak, dudarik gabe. Mahaia jarri eta primeran pasatzen dugu. San Juanetara joateko ohiturarik ez dugu.



Mari Karmen Aranburu

Santa Isabeletara joateko ohitura handiagoa dugu San Juanetara joateko baino. Zumarraga eta Urretxun bizi izan naiz eta aukeran, nahiago ditut Santa Isabelak.

BIONA

AROTEGIA

Altzariak neurrira

☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen edizioko laguntzailer:

En la edición de esta publicación colabora:

kutxa fundazioa
fundación

EDURNE

JANTZIDENDA

Piedad, 18 ☎ 943 721417 ZUMARRAGA



Lanbri.ca

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52

Keros
Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak
Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

Kuadrilak festetako protagonista



Auzokoak elkarteko lagunak Santa Isabel egunean Antion

Auzokoak elkartekoak giro ezin hobean igarotzen dituzte Santa Isabel jaiak. Bereziki, uztailearen 2a gogoratzen dute koadrilakoen artean sortzen den giro apartarengatik. Gazteagoak zirenean Antion bazkaltzen zuten tradizioari eutsiz baina **Inixio Larreinak** gogoratzen duen bezala, urte batzuetan eguraldi kaxkarra izan omen zuten eta aurrerantzean, Auzokoak elkartean bazkaltzera pentsatu zuten. Azken urteetan, goizean goiz Antiora joan, bertan dagoen giroaz gozatu eta bazkaltzera elkartera joaten dira. Lasai eta giro ederrean bazkaldu ondoren, berriz ere gora joan ohi dira autobusean jaitsiera gainontzeko guztiak bezala egiteko. Inixio Larreinak gogoan du duela urte batzuk, Eitzatik jaitsi ordez, autobusean igotzen diren bidetik jaisten zela. Lehenago zegoen giro bera dagoela uste du Inixiok, denborarekin zorionez, mantendu egin da giro eder hori eta aurrerantzean ere mantentzea espero du.

San Juanetan ere aspalditik biltzen dira koadrilak

Txirimiri kuadrila duela 44 urte hasi zen Urretxuko San Juan erromeriara joaten. 15 lagun inguru biltzen ziren hasiera batean eta mahaia, Ipeñarrieta baserriaren atzealdean jartzen zuten. Egurrezko mahai bat zuten eta urtero-urtero, konpondu beharra izaten zuten beti hondatzen zitzairen eta. Juanak prestatzen zien bazkaria eta eguna, gehientsuenak bezala, berotuta amaitzen zuten. Horregatik joan ohi ziren mutilak bakarrik, nahiz eta urte batean, neskekin batera bazkaldu **Lizarriturri**n. Goizean goiz Santa Barbarara oinez igo, majo bazkaldu eta tresnak Ipeñarrieta baserrian utzi ondoren, erromeriara joaten ziren dantzara. Hurrengo egunean berriz ere gora joaten ziren sobrak berotu eta jatera. Eta noski, ajea kentzeko edo, sobratutako edariak ere edaten zituzten. Ekainaren 25ean beraz bigarren jaitsiera bat egiten zuten tresnak jaisteko aitzakiarekin. Tresna hauek gainera, jaitsierakoan ematen zituzten salto eta brinkoekin puskatuta iristen ziren herrira. Denborarekin, ordea, formaldu egin dira eta gaur egun, emazteak ere gonbidatzen dituzte San Juanetako bazkarira. Hainbat bitxikeria dituzte gogoan, esatebaterako, Javier "Largate"kojoarena. Kojoa izan bai baina egun horretan zeharo animatuta, gora eta behera ezer ez balu bezala ibiltzen omen zen fin-fin. Beste behin, euria hasi zuen

batean, Txirimirikoak babesteko toldoa zuten baina ondoko koadrilak ez zuenez, Txirimirikoan mahai azpian bazkaldu omen zuen kuadrila hark. Santa Isabeletan, jende dotoreagoa ibiltzen zelako edo, jendea mareatu egiten omen zen purua errez, San Juanetan berriz, mozkortu. Jaitsiera, erdi tente erdi erorita egiten omen zuten giro ederrean.



Txirimiriko kuadrilak aspalditik ospatzen ditu San Juanak

Publizitatea

725775

☎ 72 42 55
Legazpi, 14
ZUMARRAGA

ecu

☎ 43 19 72
Getaria, 18
DONOSTIA

IKER

SUKALDE ERAKUSKETA

FAGOR

Udala Enparantza, z/g
Tel.: 943 / 79 00 43
20500 ARRASATE

Ipeñarrieta, 5
Tel.: 943 / 72 50 75
20700 URRETXU



Kuadrila galanta osatzen dute Zumardikoak egun berezi honetan

Zumardi elkarteko kideak gatza eta piperra jartzen diete Zumarragako jaiei. Bi kuadrilak osatzen dute elkarte hau, "Hor konpon" eta "Enpuje Ardozale" izenekoak hain zuzen ere. Luis Ormazabal eta Miguel Urteagarekin izan gara eta hauek, beréziki oroitzen duten eguna, lehengo kuadrilen eguna da. Abuztuaren 16an ospatzen zen egun hau, herriko festak, garai honetan zirelako lehen. Azkeneko urte hauetan baino askoz ere jende gehiagok parte hartu omen zuen lehen kuadrilen egunean. Lagun talde bakoitzak, bere trikitixa izaten omen zuen eta horrez gain, janzkera berezi bat ere bai. Garai hartan, karrozak ere egiten omen ziren. Tabernetan edo garajeetan bazkaltzen zuten San Roke egunean eta ondoren, kalejira egiten zuten kuadrila guztiek elkarrekin. Zumardiko lagun taldea ez da nolana hikoia izan. Zumarragako festei egindako ekarpen handienetakoa, txaranga izan zen. Bi aldiz pentsatu gabe, bonbardino, saxofoi eta tronpetariak kanpotik ekarri eta txaranga bat osatu zuten. Seriotasun handiz hartu zuten txarangaren sorrera, entseiuak ere egiten baitzituzten.

Ezpatadantzan dantzan ibilitakoak ere badaude bat baino gehiago elkarte honetan. Lehenago, abuztuaren 15ean dantzatzen zen eliza barruan eta 16an, prozesio an-tzeko bat egiten zen. Dantza talderik ez zegoenez, lau pertsonak dantzan ikasi eta soka, kuadrila bakoitzeko pare bat ibiltzen omen ziren.

Miguel Oria eta Luis Ormazabalek, Santa Isabeletan, familiarekin bazkaltzeko ohitura handi goa zegoela esan digute kuadrilarekin baino. "Hor Konpon" kuadrilakoak duela lau urte ekin diote berriz ere Antion bazkaltzeari. Hogeitabost kide biltzen dira, senar eta emazte. Ohitura berri bati ere heldu diote, hain zuzen, bazkaldu ondoren, ermitan sartu eta "Agur Antiguako" kanta abesten dute. Zumardiko bi kide hauen ustez, azken urteetan, Santa Isabel egunean, ez da musika egokiena jartzen. "Bertako musika jarri beharrian, rantxera, pasodoble eta bestelako musikak jartzen dira. Bestalde, lehen, eliz aurreko erromerian jende asko izaten zen dantzan eta orain berriz, jende gehiena Elizaldeko tabernara jaisten da". Bestalde, Antiotik herrira egiten den jaitsierak, azken urteetan, gora egin duela uste dute.

Baina Zumardi elkarteak, festak ondo pasatzeaz gain, antolakuntza lanetan ere parte hartzen du. Aurten, 27. aldiz jarraian, "Dantza libre txapelketa" antolatu dute. Euskal Herriko bikoterik onenek hartuko dute parte uztaillaren 5ean arratsaldeko 7etan Euskadi enparantzan egingo den dantza lehiaketan.



Giroa alaitzeko sora handiak erabiltzen dituzten



RENEDO argazkiak

Jaunartzeak • Bataioak • Ezkontzak

Labeaga 52-54 F 20700
URRETXU

☎ 725682
722292



MAPFRE

Aseguru etxea

S.Esnaola, 6 ZUMARRAGA
☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00



BAPRI
ANIMALIADENDA

Txoriak, arrainak, katuak, dordokak

Urdaneta, 3

☎ 72 61 13

ZUMARRAGA

GORETTI

JANTZIDENDA

MODAKO
ARROPAK

Secundino Esnaola, 34 ☎ 943 724996

PLAZAOLA

ITURGINTZA

Bide-Zar, 5 ☎ 943 721370 ZUMARRAGA

Urretxuko kaleak dantzariz bete ziren

Jai giroa izan zen nagusi ekainaren 21ean Urretxuko kaleetan **Lurra dantza taldeak Dantzari Txiki eguna** ospatu baitzuen. Egun ederra izan zen taldeko kide guztientzat, urte osoko lanaren fruituak herri-tar guztien aurrean erakusteko unea izan zelako.

Aurtengo Dantzari Txiki eguna ordea, berezia izan zen Lurra taldeko kide baten-tzat. Berak ezer ez zekien arren, dantza taldeko lagunek sorpresa ederra prestatu zioten **Nekane Fernandez De Aranguizi**. 29 urteko urretxuar gazteak zilarrezko eztaiak bete ditu aurten Lurra dantza taldean. Lau urte besterik ez zituela hasi zen dantzan eta ordutik hona dantzari iaia izan da. Taldeko dantzari izateaz gain, Nekane, 15 urte daramatza haur eta helduen irakasle eta gogor egin du lan taldearen alde. Dantzari Txikien eta herri arteko folklore jaialdietan hasiera eta garapena ezagutu ditu besteak beste.

240 dantzariz osatutako taldea aurrera ateratzeko lan itzela egin behar da, musu truk gainera, eta urtemuga honek bere ondoan lanean diharduten lagunei dantzan aritzeko animoak ematen dizkie.



Argazkian, Lurra dantza taldeko neska taldea

Zilarrezko eztaiak betetzen dituen lehen dantzaria bada ere, besteak ere prest daude 25 urteetara iristeko.

Nekane Fernandezek, dantzari eskaini dizkion orduak eskertzeko asmoarekin, Garaialde Lizeoko enparantzan bildutako

dantzari eta ikusleen agur beroa jaso zuen. Urretxuko XIX. Dantzari Txiki egunean, Lurra taldearekin batera, Legazpi, Beasain, Azkoitia, Bergara, Goizueta, Erreterria, Zumarraga eta Bermeoko dantzariak hartu zuten parte.

● **Izaro**, ea iletxo hori noiz moztzen duzun. **Zorionak** etxekoen partez!



● Jokin, lau urte betetzen dituzun hone-tan musu handi-handi bat guraso eta Cynthiaren partez.



● Hain bihurri segitzen baduzu agian erre-alaren jantzirik gabe geratuko zara. **Zorionak Jon**, etxekoen partez!



● Oso bihurria den mutiko hau zoriondu nahi dugu. Zure izeba eta lehengusuak. **Zorionak Alexander!!**



● 24an zure urtebetetzea dela eta zu zoriondu nahian gabil-tza. Lagun eze-zagun batzuen partetik. **Zorionak Arkaitz!!**



● Zutaz ahaztu-ko nintzela uste bazenuen oso oker zeun-den. **Zorionak Imano!!!!**



● **Zorionak Antxiñe** eta ondo igaro urtebetetze eguna, zure lagunekin batera.



● Zure urtebetetzea dela eta aldizkari honen bitar-terez zoriondu nahi zaitut. **Zorionak Floren!!!**

● Txoritxo batek zure urtebetetzea dela esan digu eta zu zoriondu gabe ez gara geldituko. **Zorionak Ignacio!!!**



● Laster 10 urte bete behar dituen neska pampoxa zoriondu nahi dugu. **Aupa Iraia!!!**



● **Zorionak Prontxo!!!** Zenbat erori dira? Egun polit bat igaro eta zorionak berriro.



● Egun eder bat igaro ezazu eta ea noiz ospatzen dugun. **Zorionak Ignacio!!!**



● Pelotari ona izateaz gain lagun ona den Beñat zoriondu nahiko genu-ke. **Zorionak Beñat!!!**



● Iruñeako dama gazte guztiak azto-ratu dituen mutilak 21 urte bete dituela eta nola ahaztuko genuen ba. **Zorionak Paulo !!!**



● Nahiz eta zu gutaz batzutan ahazten zaren, gu zutaz gogor-ratzen gara. **Zorionak Ainarai!!**



● Nor naizen cismatzen baduzu, txampain botila bat oparituko dizut. **Zorionak M^a Carmen!!!**

Izazpiko gurutzeak 50 urte

Datorren ekainaren 27an berrogeita hamar urte beteko dira, Zumarragako lagun batzuk Izazpi tontorreko gurutzea eraiki zutenetik. Mende erdia, berrogeita hamar urte luze pasa dira tontorrean gurutzearen itzala ikus daitekeenetik.

Gazteago garenok gurutzez koroaturik ezagutu dugu tontorra. Eta gurutze bera izan da, urte hauetan guztietan, tontorrera hurbiltzearen zedarria, azkeneko urratsak betetzeko irrikatan, azkeneko izerdiak botatzeko nahian, gorputza eta espirituaientzako atsedena berehala etorriko dela ematen duen seinale garbia.

Izan ere, giro berezia dago gurutzean, mundua txiki geratzen da bertan, eta Ernioko haitzetatik Oiz mendiko urruntasuneraino, Aralar mendikateatik Kanpezu inguruko Joar mendiraino, baita egun garbietan Pirinioetaraino ere... ia Euskal Herri osoa begizta daiteke; orduan paisaiak inguruan barnera zaitez gonbidatzen zaitu, urrutira begiratu, horizonteko mendietan begirada galdua lausotuz..

Oraindik gogoratzen dut OHOKo klase osoarekin, Izazpira igotako lehendabiziko aldia, egiten zuen lainoa, eta nire gorputz barnean herriarekiko sentitzen nuen urruntasuna. Urruntasuna. Bai, urruti sentitu nintzen goian nengoan, eta urruti sentitzen naiz gaur egun ere bertara joaten naizen bakoitzean. Eta akaso horrexegatik lor daiteke goian behean ezin eskura daitezkeen bakea eta lasaitasuna.



Sinestezina badirudi ere, Aranburu sendiak kotxean igotzea lortu zuen Izazpiko gurutzerara.

Ikaskideekin egindako lehendabiziko txango hartan mundua aurkitzen ari nintzen, eta egun ere joaten naizen bakoitzean mundua berraurkitzen dut Izazpiko tontor honetan, Izazpiko talaia beti baitu zerbait berri erakustekorik.

Hogei bat urte ondoren, hainbat eta hainbat pasadizo eta gertaera, hainbat oroimen —berri eta zahar—etortzen zaizkit gogora. Tontorrean lagunekin konpartitutako sagarra, haizeak dakarren isiltasuna, eguzki-izpien laztan beroa, elurraren zurtasun maltzurra, mendizale ezezagunak (eskerrik asko!) gurutzeko buzoian utzitako gozokia edo agur-oharra, Anjel Etxeberriaren omenezko ibilaldi neurtu hartan herrietako haurrek egindako bisitaldia, izerdiak hustutako mendi-txirindularia, Gaintzan jaiotako zumarragar lagun honek gainetik jaitsi ondoren Zumardi elkartearen gonbidatutako freskagarria... eta baita elurrak hegiak estaltzen zituenean, zakurra *galdurik* omen zuten (sasi-)jehiztaritaldea, Donostiako mendi-

talde ezagun bat igaro ondoren gainean utzitako laranja koloreko estalkia, Elortxo aldetik tontorrera igotako lurrerotakoa, zibilizazioetik datozen trenbidehotsak, ke zutabeak, Atxurza inguruko ehizatarien tiro hotsak, autoen txingurri-itxurako mugimenduak... Eta azkeneko urtean gurutzean (edo *monolitoan?*) jarritako ikurrin-euskarria, eta a ze paradoxa!, gurutzeak bisitariari *pakea ta maitasuna* opa dizkionean, plaka txiki batean aipatutako *burruka handia*...

Berrogeita hamar urte pasa dira eta beste berrogeita hamar urte opa dizkiot gurutzeari. Izazpi, Gipuzkoako mendi apala. Goierriko txoko honetako erakusleho berezi honek ez du katalajeo edo teleskopioen beharrik, ezta gida turistikoetan sartzeko beharrik ere. Bertara bazoaz, paisaia, ikusmira segurtatuta duzu-eta. Egizu proba!


Jonmikel Insausti
—mendizalea—

MASTER HEZKOR

Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera aparta

Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31
ZUMARRAGA



Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

OINETAKOAK

OSAGARRIAK



Doña Maximina

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 943 72 44 82



Alejandro Albisua

kirol gaiak

Soraluze 6
☎ 72 52 22
ZUMARRAGA



GUREA

Iurgintza



Bainurako altzariak
Gas instalazioak
Berogailuak
Bainuak...

Barrenkale 17- ☎ 72 12 67
20700 URRETXU

la 20 urte eliza garbitzen

Bolondres, trukean dirurik jaso gabe 18 urte daramatza hamasei emakumez osatutako taldeak, Zumarragako Andra Mari Jasokundeko eliza garbitzen. Elizako lehen obrak egin zirenean hasi ziren garbiketaren eta ordutik hona, astero-astero biltzen dira pare bat orduz, astelehen arratsaldeetan. Don Juan Jose Garmendia parroko zela ekin zioten lan honi eta hain zuzen ere horrexegatik, hasi zireneko garaiaz oroitzapen bikaina dute.

Emakume hauek elizan sortzen duten giroa aparta da. Oso ongi konpontzen dira eta urte hauetan guztietan izandako bizipen ugari gogoratzen dituzte. Ihauterietan elizatik kanpo noski, mozorroto egiten dira. Ibilaldiak ere egin ohi dituzte. Besteak beste, Ezkioko Ama Birjina ikustera, Urola trenean Donostira (Zumaia) bueltan, Liernira... Bitxikerien artean, elizako eserleku batekin gertatutakoa gogoratzen dute ongi baino hobeto. Antza

denez, eserleku batek alde-antzi zituen eta hor ibili ziren aipatutako bi emakume horiek, eserlekua nola jarri ezin asmatu. Azkenean konturatu ziren hantketan zegoela gakoa.

Kuadrila aparta osatzen dute eta beraiekin bat egin nahi duenak, orain badaki non



Zumarragako eliza esku honetan dago emakume hauekin

aurkitu ditzakeen. Astelehenetan, arratsaldeko hirurak eta erdietatik aurrera Zumarragako parrokiaren

Gazteentzako denborapasa eskaintza

Arantxa Zabaleta, Iñaki Leizeaga, Jaione Ugarte eta Igone Aldabe dira Topaleku eta Gazte Txokoko dinamizatzailerak. Zumarragako udaleko Ongizate Sailak bideratutako proiektua da eta gazteen denbora librean antolatzeak aukera moduan jaio zen. Gazte Txokoa duela 6 urte hasi zen martxan eta Topalekua berriz, duela 3 urte. Orotara, astero-astero, 80 bat haur joaten da bi elkarteetara nahiz eta izena emanda, askoz ere jende gehiagok duen. Elkarte hauek eskaintzen dituzten zerbitzuak, anitzak dira. **Gazte Txokora**, 8 eta 13 urte bitarteko edozein haur hurbildu daiteke. Astearte, asteazken eta ostiraletan, arratsaldeko 6etatik 8etara bitartean dago zabalik eta bertan, ludoteka, jolas lekua eta liburutegia daude. Ikasketetan laguntzeko hezitzaile bat ere egoten da. Honez gain, hamabostean behin tailerrak antolatzen dituzte, hiru hilabete behin, gurasoekin ekintza bereziren bat egiten dute eta opor garaian, herriko beste gazteekin batera, hainbat ekintza ireki antolatzen dituzte.

Topalekuan berriz, 14 eta 18 urte bitarteko gazteak biltzen dira. Astelehen eta asteburuan ezik, gainontzeko egunetan egon ohi da zabalik arratsaldeko 7etatik

9etara. Liburutegia, bideo gela eta jolasteko espazioa dago Topalekuan eta hemen ere, ikasketetan laguntzeko hezitzaile bat dago. Elkarte honetan, bertako gazteen iritzia kontuan hartzen da ekintzak antolatzerako orduan. Bertako taldeen proposamenak kontuan hartuz, hiru hilabete behin tailerrak egiten dituzte. Segura, Zarautz eta Alsasura ere joanak dira asteburuetarako eta bestalde, bi hilabete behin, beste herrietako gazte eta hezitzaileekin topaketak burutzen dituzte.

Udara kalean

Uztailerako hainbat ekintza prestatu dituzte "Udara Kalean" kanpainaren barnean bilduz. Uztailaren 6an hasi eta hilabete bukaerara 13 eta 18 urte bitarteko gazteek ederki asko gozatu ahal izango dute. Aste bakoitzari izen bat eman diote. Lehenengo astea kirol astea izango da, bigarrena kultur astea, hirugarrena, natura eta ingurugiro astea eta laugarren astean Debako kanpi-



Topalekuko begiraleak Gazte Txokoa

nera joango dira hondartzaz gozatera. Proba gehienak musutruk dira baina batzuetan, parte hartzeko dirua jarri beharra dago.

Bertso-paper lehiaketaren sari banaketa

Ekainaren 12an, Urretxu eta Zumarragako Eskolarteko XI. Bertso-paper lehiaketaren sari banaketa izan zen Pagoeta Antzokian. Bi maila bereiztu dira txapelketa honetan, **A mailan**, LHko 5. eta 6. mailakoak, 2 bertso edo 4 koplak idatzi beharra zuten gai hau hizpide zutela: "Espaziuntzi batean ilargira zoaz, zer eramango zenuke?" Maila honetan orotara, **89 lan** aurkeztu ziren. Bestalde, **B mailan**, DBHko 1. eta 2. mailakoak egin beharreko lana, "Zer duzu amets" gaiaren inguruan 2 bertso idaztea zen. **7 partehartzaile** aritu ziren maila honetan. A mailan lehenengo saria **Iñaki Berriotxoarentzat** izan zen, Bigarrena **Maialen Fidalgoarentzat** eta hirugarrena **Maitane Gabiriarentzat**. B mailan, berriz, txapelketa **Uxue Fernandez** izan zen. Bigarren **Arantzazu Arrospide** eta hirugarren **Igutze Aseginolaza**. Azken hau Joxe Mari Iparragirre institutokoa da eta gainontzeko guztiak, Urretxu-Zumarragako ikastolakoak. Zorionak!!!



Sarituak, udaletxeko ordezkarekin Pagoeta antzokian



Erlantz saria jasotzeko unean

Erlantz Mendaraz argazki lehiaketan irabazle

Gipuzkoako mendizaleak antolatutako lehiaketan, 11 urteko Erlantz Mendarazek **akzesit saria** jaso du. Erlantz, Gainzuriko ikaslea da eta mendizale bikaina. Mendi martxa erregulatuetan ibili ohi da eta **Usurberako igoeran**, argazki lehiaketa antolatu zela aprobeztatuz, argazki ederra atera zuen. Maitzaren 30ean, Donostian jaso zuen saria Erlantzek. Zorionak!

Iñaki Beitia II. mendi martxa

Datorren **uztailaren 19**rako, Ostadar MT, Goierri KE, Zintzo Mintzo, Aldiri KE eta Urretxu-Zumarragako Ikastolak, bi udaletxeen laguntzarekin, Iñaki Beitiaren omenezko II. mendi ibilaldia antolatu dugu. Ibilbide motza eta luzea izango dira aukeran. Izen ematea 1.000 pezetakoa da. Ostadar mendi elkartearen (Jai Alai 4an), Goierri kirol elkartearen edo Euskadiko Kutxako 027.0.03091.4 zenbakian apunta zaitezke. Animatu zaitezte.

Urretxu-Zumarragako III. Herri Olinpiadak

Uztailaren 6tik 17ra bitartean, arratsaldeko 7etatik 10etara III Herri Olinpiadak jokatu dira. Izen ematea ekainaren 30 arte bitartean egin dezakezue Florida tabernan edo Zintzo-Mintzo euskaltzaleen elkartearen egoitzan. Izen emandako taldeekin bilera, uztailaren 1ean izango da Urretxuko Kultur Etxean iluntzeko 8etan. Kirol ugaritan parte hartzeko aukera izango da: Aretu futboleant, saskibaloian, esku-pilotan, palan eta triathloian. Joko bakoitzeko lehenengoari eta olinpiadaren txapelketa afari bikain bat eskainiko zaie. Honetaz gain oroigarriak ere banatuko dira txapelketa artean. Antolatzaileak Zintzo-Mintzo, Gaztelekua eta Euskal Jaia Taldea. Olinpiadako hizkuntza **EUSKARA** izango da.



500 lagun inguru bildu ziren ikastolak antolatutako afarian

Gurasoen arteko afaria Ikastolan

Urretxu-Zumarragako ikastolan burutu diren hainbat ekintzari amaiera emateko, guraso, ikasle eta irakasleen arteko afaria egin zuten bertako futbol zelaian **ekainaren 19an**. Hirugarren urtea da gisa honetako afaria egiten dutela eta lehenengo urtean 150 joan baziren, aurtengo guztiak apurtu dituzte guztira **500 pertsona** joan baitira. Tartean, ikastolako trikitilarien eta bertsolarien saioak, jolasak eta ikasturtean zehar egindako ekintzak diapositibetan ikusteko aukera izan zuten. Ikasturteari, giro bikainean eman zioten amaiera.

“Bernar”, Gorka Zufiaurreren hirugarren laburmetraia

Pagoeta antzokian inauguratu zen ikusmin handia sortuz



Gorkak, Miren Gojenolarekin batera egin du lan

Gorka Zufiaurre urretxuarrak etengabeko jarioa du aktore gisa. 20 urte eginberri ditu eta dagoeneko hiru laburmetraiatan protagonista izan da. “Aquel mundo de Jon”, “La caja de Croissants” eta orain, “Bernar”. Azken laburmetraia honen istorioa hondartza batean garatu da, 12 minutuko iraupena du, txuribeltzean egina dago eta ia milioi bateko aurrekontua du. Down sindromea duen mutil baten eta haurdun dagoen emakume baten arteko istorioa kontatzen da laburmetraia honetan. Gorka Zufiaurrek, Bernarren papera egiten du eta haurdun dagoen emakumearena berriz, ETBko Goenkale teleailean ere parte hartzen duen Miren Gojenolak. Bi aktore hauetaz gain, bada hirugarren bat,

Patxi Ugalde, ETBko Benta Berri saioan ageri ohi dena. Kantabriako Oriñonen eta Lagako hondar-tzetan grabatu zuten lan hau eta orotara, hiru asteburu behar izan zituzten. Behin muntaia eta gainontzeko xehetasunak amaitu eta

gero, Gorka Zufiaurreren urtebete-tzea zela aprobetxatuz, Urre-txuko Pagoeta antzokian estreinatu zuten Bernar ekainaren 5ean. Bi aldiz ikusteko aukera izan genuen euskara hutsean eginiko laburmetraia eta tartean, Gorka Zufiaurre aktoreak eta Jon Andueza zuzendariak grabazioaren gorabeherak kontatu zizkigu-

Lehenago, lau sari jaso dituen “Laugarren galeriatik” izeneko laburmetraia zuzendu du Anduezak. Arrasatearrak lagun mina duelako eta aktore gisa maila handia duelako aukeratu du Gorka Zufiaurre Bernar laburmetraiarako. Honez gain, talde lana goraitu nahi izan du zuzendariak, guztira hamabost pertso-

“Bernar” euskara hutsean da eta ia milioi bateko aurrekontua du

ten. Ekitaldi hunkigarria izan zen, jende ugari bildu baitzen laburmetraia ikusteko eta bide batez, Gorka zoriontzeko. Hainbat sari jaso zituen aktore urretxuarrak, tartean, aktore onenei eman ohi zaien “oskarrak” ere bai.

Zuzendaria Jon Andueza

Gidoia eta zuzendaritza lanak Jon Andueza arrasatearrak egin ditu. Ekimena, sortuberri duten Udalatz Filmeak produkzio etxean sortu zen eta Bernar dagoeneko, euskara hutsean egiten duten bigarren emaitza da.

na inguru aritu baitira lanean. Aurrekontuari bakoitzak bere poltsikotik egin dio aurre eta diru hori orain, laguntza ekonomiko eta sortu daitezkeen sariekin berreskuratu nahi dute. Banaketarako zirkuitu alternatiboa osatu nahi dute eta horretarako, film labur-sorta bat eskaintzeko asmoa dute. “Laugarren galeriatik”, “Bernar” eta “Txotx” labur-rak batu eta elkarteei, zineklubeei, udalei eta animatzen diren guztiei eskainiko diete produktu bakar bat bezala.



Gorka Zufiaurre, Urretxu alkatea eta Jon Andueza, Udalatzeko zuzendaria egindako aurkezpenean

Pala txapelketa Zumarragako jaien aurrekari



Pala txapelketan maila ona erakutsi dute bikote guztiek

Zelai Aristi zuhaitziko frontoian jokatzen da eta ikusle ugari biltzen ditu. Iaz ez zen ospatu antolatzaile falta zela eta, baina aurten hemen dugu berriro ere arratsalderoko denborapasa. Zumarragako frontoiko arduradun eta txapelketaren antolatzaile den Antxon Biainek honen berri eman digu.

-Zeintzuk dira txapelketaren ezau-garri nagusiak?

Izen ematea doan da eta nahi duten guztiek parte har dezakete. Pelotariak bi mailatan banatuak daude, lehenengo mailan aurten 6 bikote daude eta bigarrenean 11. Lehen mailan denek denek aurka jokatu eta ondoren lau onenek finalerdiak jokatuko dituzte. Bigarren mailan 6 eta 5 bikotez osaturiko bi multzo daude. Talde bakoitzeko onenek finalerdiak jokatuko dituzte euren artean.

-Maila ona al dago?

Bai, izan ere afizionatu mailan ondo dabilen bikoteak herririk herri ibiltzen dira txapelketa ezberdinetan jokatzen. Bestalde, herrietako txapelketa hauetaz gain, Gipuzkoako txapelketa ere badute eurentzat.

-Zeintzuk dira bikote onenak?

Aizarnazabalgo Moxo eta Garikoitz, Debako Egaña anaiak eta Urretxuko Benito eta Laka azpimarratzeko nituzke. Egaña anaiak Gipuzkoako txapeldu-nak dira eta Benito-Lakak askotan irabazi dute txapelketa hau.

-Zein sari eskeintzen zaie garaileei?

Bi mailetako garaileak kopa, txapela eta palak izango dituzte sari gisa. Bestalde, finalerdietara heltzen direnek afaria izango dute.

-Zer berezitasun du txapelketa honek?

Berezitasun nagusia estali gabeko frontoian jokatzen dela da. Hau hasieran pelotariei arraroa egiten zaie. Izan ere, ez dago atzeko paretarik eta beraz erreboterako aukerarik ez. Gainera pelotariak frontisa oso txiki ikusten dute, zerua, pareko etxea, zuhaitzak... ere ikusten baitituzte. Euria egiten duenean Beloki frontoian jokatzen dira partiduak, baina orduan jende gutxiago hurbiltzen da. Badirudi jendeari partiduak eguraldi ona dagoenean ikustea atsegin zaiola.

CHIARA

**Etzerako lentzeria
Oparitarako gaiak**

Labeaga, 33-C behea ☎ 72 51 18
Madaia plazoletan
20700 URRETXU

ZAPATAK



Otik 40 zenbakiraino

Eliz-kale, 7 ☎ 943 72 54 39 ZUMARRAGA

Montajes e Instalaciones Electricas

HERCE
Electricistas M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta, 4 ☎ 72 09 50
Tailerra: Mugitegi ☎ 72 42 66
☎ Mugikorra: 919 442 617
20700 URRETXU

foto luz
Argazkilariak

Legazpi, 5
☎ 72 11 55
Zumarraga

Labeaga, 43
☎ 72 16 81
Urretxu

Kale nagusia, 5
☎ 73 04 19
Legazpi

* ZURE ESTUDIOA *

URki

**UDARRAKO
DENBORAPASAK**

S. Esnaola, 3
☎ 72 42 98
ZUMARRAGA





Endika Alzelai "Endika"

✓Zer izan nahi zenuen umetan?

Arkeologoa.

✓Dutxatzeko ur hotza ala beroa?

Epela.

✓Denbora librean zer egitea gustatzen zaizu?

Irrintzi eta Zumarragako txistulari taldearekin txistua jo.

✓Ze opari hartuko zenuke gustura?

Edozein.

✓Nor gustatuko litzaizuke ezagutzea?

Sinead O'Connor

✓Asteburua deskantsatzeko ala gehiago nekatzeko?

Deskantsatzeko nahiago, baina askoz gehiago nekatzen naiz.

✓Zure gorputzeko zein atal aldatuko zenuke?

Ezer ez.

✓Nora begiratzen diozu lehenik neska bati?

Aurpegira.

✓Zer falta zaio Urretxu-Zumarragari?

Zine bat.

✓Zumarraga-Urretxuko gustuko toki bat?

Eitza.

✓Zumarragan ezik non biziko zinateke gustura?

Eitzan.

✓Zein da duzun ohiturarik okerrera?

Burugogor samarra naiz.

✓Bete gabeko amets bat?

Asko, Egipto eta Irlandara ez joatea adibidez.

✓Musika entzuteko, dantzatzeko, jotzeko ala kantatzeko?

Laurak.

✓Kantu bat.

Nothingman. Pearl Jam-ena da.

✓Zain egon ala besteak zure zain?

Segun eta zein den egoera.

✓Zer da gehien baloratzen duzun gauza?

Laguntasuna.

✓Norengatik joango zinateke azken muturre-ra?

Famili eta lagunengandik.

✓Gaua ala eguna?

Biak.

✓Lo egiteko zer?

Irratia edo musika.

✓Gustuko janari bat?

Patata tortila edo lur sagar arrautzopila.

✓Ura, ala...

Kalimotxoa, Gin-kasa, garagardoa... eta igande goizetan koka kola.

✓Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun hori?

Egipto edo Irlandara ez joatea.

AIN
Informátika
IKASTAROAK
EKIPOEN SALMENTA
INTERNETA

Labeaga, 31 URRETXU ☎ 943 724940

UZTAILEAN
IKASTARO
TRINKOAK
Matrikula Zabalik

PUBLIZITATEA

☎ 72 57 75

TELAETXE S.A.

OIHALAK eta OIHAL PUSKAK

Zetak, toailak, izarak, eta abar.



➤ Somierrak (artikulatuak eta elektrikoak ere bai), nordikoak eta LATEXeko KOLTZOIAK preziorik onenean!



➤ Etxea apaintzeko era guztietako ehun-gaiak, estoreak...



➤ Sukalderako eta saloirako kortinak neurrira egiten ditugu.



➤ Era guztietako tapizak.

ORDUTEGIA

Astelehenetik zapatuta: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00

Elgetako bidea (gasolindegitik 300 metrora, "Cotones Agirrezabal"en ondoan)

Telefonoak: 943 76 39 40 / 39 41 • Faxa: 943 76 56 38 • BERGARA

Eskerrikasko Urretxu-Zumarragako
bezero guztiei gudan jarritako konfidantzagatik

Urretxuko Giroa

URRETXUKO ALDAPA